



Ekonomia solidarioa:

ekonomia eraldatu,
gure mundua
eraldatzeko

Edukien proposamena

Carlos Askunze Elizaga



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Argitalpen hau REAS Euskadi proiektuaren ekimena da:



Proiektuaren kofinantzaketa:



**Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko
Edukien proposamena**

Egilea: Carlos Askunze Elizaga

REAS Euskadi
Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria
Plaza Venezuela 1, 2º ezk. ezk. • 48001 Bilbo
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

2019ko abendua

ISBN: 978-84-120567-4-7

Lege-gordailua: BI-02712-2019

Diseinu eta Maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Fundazioa

Imprimaketa: Lankopi s.a.l.



Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Lan hau aldatzen edo eraldatzen bada edo lan honetatik beste bat eratoritzen bada honen berdina den lizentzia batekin bakarrik banatu ahal izango da.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>

Aurkibidea

Aurkezpena. Ekonomia birpentsatzearen, heztearen eta bestelako ekonomia bat eraikitzearen garrantzia	5
1. Zer gertatzen da ekonomiarekin?	9
1.1. Ekonomiaren jatorritik gaur egungo ekonomia eredura	11
1.2. Ekonomia kapitalistaren gizarte eta ingurumen mugak	12
2. Badago ekonomia egiteko beste modu bat	15
2.1. Ekonomia kritikoak eta eraldatzaileak	17
2.2. Bizitzaren jasagarritasuna, paradigma berri gisa	20
3. Proposamen alternatibo bat: ekonomia solidarioa	23
3.1. Ekonomia solidarioaren definizioa eta printzipioak	25
3.2. Ekonomia solidarioko jarduerak, tresnak eta sareak	27
4. Zer egin dezakegu diruarekin?	31
4.1. Dirua eta finantzak, ekonomian	33
4.2. Ekonomia berri baterako finantza etikoak eta alternatiboak	35
5. Lanak, enpleguak eta enpresak	39
5.1. Bizitzarako beharrezkoak diren lanak eta enpleguak	41
5.2. Ekoizpen jasagarria xedetzat duten enpresa eredu berriak	42
6. Merkatu sozial baterako kontsumo eraldatzailea	45
6.1. Merkatu kapitalistak badu alternatibarik	47
6.2. Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzaileko proposamenak	49
7. Diruaz eta merkatuaz haratago: komunitatearen zerbitzurako ekonomiak	51
7.1. Zer dira ekonomia komunitarioak?	53
7.2. Ekonomia komunitariorako proposamenak eta tresnak	54
Kontsultatutako bibliografia	57



Aurkezpena.
Ekonomia
birpentsatzearen,
heztearen
eta bestelako
ekonomia bat
eraikitzearen
garrantzia

Zalantzarik gabe, gaur egun, ekonomiak –ekonomia ulertzeko modu jakin batek, kapitalismoak– goitik behera baldintzatzen ditu antolaketa politiko eta soziala, maila lokalean nahiz globalean. Eta ez hori bakarrik: orain arte gure planetan sekula ez bezalako ingurumen eta gizarte egoera jasangaitz edo ez-iraunkor batera garamatza ekonomia ulertzeko eta egiteko modu horrek. Era berean, kapitalismo globalizatu eta neoliberalak pentsamendu eta kultura jakin bat sortu ditu, irabazi asmoan, indibidualtasunean, lehiakortasunean eta merkantilizazioan oinarritua; pentsamendu eta kultura horiek gizarteko arlo guztietan daude presente, eta pertsonen bizitzaren eta beren arteko harremanen egunerokotasunean eragin dute.

Txosten honetan aurkezten den proposamenaren asmoa da, hain zuzen ere, ekonomia, hari buruzko pentsamendua eta haren jardura eraldatzeko premia abiapuntu hartzea, hortik abiatuta, gure mundua eraldatzeko. Ekonomia, eraikuntza humano, sozial eta historiko gisa, aldatu egin daiteke eta aldatu egin behar da: hain zuzen ere, pertsonen eta komunitateen ongizatera bideratu behar da, erdigunean jarririk bizitzaren jasangarritasuna bera.

Horregatik azpimarratu nahi dugu ekonomia *birpentsatzearen* garrantzia; hau da, nabarmendu nahi dugu zein garrantzizkoa den ekonomiaren gaineko pentsamendu eta ikuspegi kritikoa sustatzea, eta ekonomiaren azterketa ongi komuna, feminismoa, ekologia eta justizia, adibidez, ardatz izango dituzten irizpideetan oinarritzea. Mundu hobe baterako kontakizun berri eta proposamen ekonomiko alternatiboak eraikitzeke irizpide horien bitartez.

Era berean, funtsezkoa iruditzen zaigu pentsamendu kritiko hori praktikan jartzeko gai izango diren pertsona kontzientziatuak izatea. Horretarako, ezinbestekoa izango da, noski, *heztea*; ezagutza sustatzea, jarrerak garatzea eta jardura pertsonal eta kolektiboaren erreperitorio bat eratzea, ekonomiarekin dugun erlazioa eraldatzeko.

Azkenik, bestelako ekonomia bat *eraikitzeke* ezinbesteko baldintzak dira pentsamendu kritiko eta kontzientziarioa. Pertsona aktiboak eta ekintzaileak behar dira gure inguruan eta mundu osoan agertu diren alternatiba ekonomiko zehatzak garatzen parte hartzeko. Bizitzaren merkantilizazioari eta bizitza arriskuan jartzen duen garapen ekonomikoari aurre egiteko politikoki mobilizatuko diren eta jardungo duten pertsonak eta organizazioak behar dira.

Material hau hezkuntza formalean nahiz ez-formalean diharduten pertsona eta kolektiboek begira eta gai hauekin ohituta ez dauden gazte nahiz helduekin erabiltzeko sortua da. Edukien proposamenean, ekonomiaren funtzionamenduaren eta haren ingurumen eta gizarte mugen analisi sintetiko bat egiten da, lehenik eta behin, eta, analisi ekonomiko kritikoaren aurkezpen orokorraren ondoren, finantzen, lanen eta enpresen, merkatuaren eta kontsumoaren edo ekonomia komunitarioen arlo zehatzetan ekonomia solidarioak eskaintzen dituen proposamen alternatibo nagusien berri ematen da.

Proposamen didaktikoan, gai horiek bizipenen bidezko ikaskuntzaren ikuspegitik eta hezkuntza ikuspegi kritiko eta eraldatzailetik lantzeko jarduera zehatzak bildu dira.

Ekarpen hau *ekonomia birpentsatzeko*, *hezteko* eta *bestelako ekonomia bat eraikitzeko* tresna baliagarria izango delakoan gaude. Tresna baliagarria, gure mundua eraldatzeko bide emango duen bestelako ekonomia bat eraikitzeko. Tresna baliagarria, bizitza hobea batzuk ahalbidetuko dituen bestelako ekonomia bat.

1.1. Ekonomiaren jatorritik gaur egungo ekonomia eredura

Etimologikoki, "ekonomia" hitza grezierako *oikonomo* hitzetik dator; *oikos*, zeinak esan nahi baitu *etxea*, eta *nomos*, zeinak esan nahi baitu *administrazioa*. Hortaz, ekonomiaren lehen definizioak etxea administratzeko gaitasunaz dihardu. Greziar munduan, administrazio egokiari buruzko gogoeta normatibo bat zuen ekonomiak abiapuntu, eta, hala, ez zen diziplina independentea, filosofian txertatua baizik. Nolabait esateko, ekonomian pentsatzea politikan eta gizarte antolaketan pentsatzearekin lotzen zen; pentsamendu beraren parte zen guztia.

Gaur egun, harrigarria iruditu dakiguke hala izatea, gaur egungo ekonomiak beste gizarte zientzia batzuekiko autonomia aldarrikatzen baitu; filosofiarekiko edo politikarekiko autonomia, esaterako.

Ekonomia global eta kapitalista bakarrean murgilduta bizi garenoi harrigarria gerta dakiguke, halaber, ekonomia ulertzeko eta antolatzeko modu hori nahiko berria izatea eta Mendebaldeko gizateriaren historian zehar ekonomia egiteko molde asko eta asko izan direla jakitea. Mendebaldeko historia gainbegiratu besterik ez dago hala izan dela jabetzeko: giza komunitate primitiboaren trukea; antzinako munduko ekonomia (greziar eta erromatar munduen arteko ikuspegi desberdintasuna); Erdi Aroko feudalismoa; XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko merkantilismoa, interbentzionismoa eta nazio-estatuak ezaugarritua; liberalismoaren sorrera, Adam Smithen eskutik, XVIII. mendean; lehen eta bigarren industria iraultzak, eta, azkenik, kapitalismoaren eta sozialismoaren sorrera.

Nork prestatzen zion afaria Adam Smithi?

"Adam Smith ekonomia modernoaren aitak idatzi zuen egunero afaltzen genuela, ez harakinaren edo okinaren onberatasunari esker, haiek beren ongizateaz arduratzen zirelako baizik; irabazi asmoa zen munduaren ardatza, eta halaxe sortu zen *Homo economicus*. *Homo economicus* gizaki ziniko eta berekoiak menderatu du harrezkero munduaz izan dugun ikuskera, eta merkatutik haratago hedatu da haren eragina, erosteko, lan egiteko, erlazionatzeko dugun moduetaraino. Adam Smithek gauero afaltzen zuen, ordea, amak afaria prestatzen ziolako, ez berekoikeriaz, maitasunez baizik".

Katrine Marçal

Ez daukagu historia ekonomiko horren ibilbidea labur biltzerik, baina nabarmentzekoa da giza pentsamenduaren eta ekintzaren emaitza dela ekonomia, gizateriaren beste arlo batzuk bezala, eta, askok besterik dioten arren, urrun dagoela zientzia zehatza izatetik: gizarte zientzia bat da, etengabe bilatzen ari dena, eta ibilbide historiko askotarikoa eta konplexua izan du, askotariko eta elkarri kontrajarritako teorien eta pentsamenduen eraginez, baita askotariko antolaketa moldeen eraginez ere.

Ikuspegi horretatik, errealitatea eta patua aldaezinak direla onartu ordez, pentsamendu ekonomiko kritikoak aldarrikatzen du ekonomiaren jatorrizko zentzua berreskuratu behar dela, etxea –alegia, gure mundu lokala eta globala– administratzeko modurik onena bilatu behar dugula. Eta administrazio horrek balioak, jardunak eta erakundeak eraikitze gaitasuna eskatzen du, giza premiei ahalik eta hobekien eta gure munduak dituen ingurumen mugen barruan erantzuteko moduan mobilizatu eta banatu ahal izan ditzagan baliabideak eta gaitasunak.

Aldiz, gaur egungo ekonomiak, ekonomia kapitalistak, irabazi asmoa eta etekin ahalik eta handiena lortzea du xede, xede horiek pertsona guztien eta planetaren beraren premien gainetik jarrita bada ere. Pentsamendu neoliberalak, gainera, ekonomiaren liberalizazioan, merkataritza askean, gastu publiko eta zergen murrizketa handietan, estatuak gizartean eta ekonomian duen esku-hartzea murriztean, eta merkataritza sektore pribatuaren mesederako ekonomian oinarrituriko arauak ezarri ditu.

Pentsamendu horrek berebiziko arrakasta izan du kulturaren esparruan, lortu baitu ekonomiaren ikuspegi hori sakon sustraitzea pertsonen usteetan, balioetan eta jardunetan. Alegia, indibidualismoa, irabaziak lortzeko grina mugagabea, lehia gordina, erabaki ekonomikoen etikarik eza eta abar ez daude presente soilik ekonomia gobernatzen duten erakunde eta korporazioetan: orobat dira gizartean onartutako balioen parte.

Aitzitik, historian zehar, eta, bereziki, azken hamarraldietan, bestelako balio eta jardun alternatibo batzuk azalera ateratzen ari dira, beste kapitulu batzuetan azalduko dugunez. Ekonomia kritikoen –adibidez, ekonomia solidarioak– ekonomiaren norabidea aldatzeko eginahaletan dihardute, baita kultura sozialean etika berri bat ezartzeko eginahaletan ere, bide horretatik berreskura dezaten pertsonen eta planetak dagokien balioa eta zentralitatea.

1.2. Ekonomia kapitalistaren gizarte eta ingurumen mugak

2007ko azken finantza krisiak eta hark pertsonengan eta herriengan izandako zuzeneko ondorioek areagotu egin dute, akaso, merkatu libre kapitalista deritzonaren funtzionamenduak beren beharrei erantzuten ez dietelako kontzientzia. Izan ere, krisi horrek nabarmen erakutsi du, are nabarmenago, sistema ekonomiko neoliberalak kontrol politikotik eta herritarren kontroletik kanpo dagoela erabat. Herrialde gutxi batzuetako pertsona eta korporazio gutxi batzuk gehiengoaren miseriaren bizkar aberastean oinarrituriko sistema bat da. Sistema bat zeinak jarri baititu ekonomia espekulatiboa ekonomia produktiboaren gainetik eta irabazi asmoa planetaren eta bizitzaren jasangarritasunaren gainetik.

Hala, globalizazioa –mundua errealitate integratuagoa eta interdependenteagoa egiten duen prozesu teknologiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen multzo gisa ulerturik– eredu

politiko eta ekonomiko jakin bati lotzen zaio, baita kontsumo neurrigabea, metaketarako grinan, muturreko indibidualtasunean eta kulturaren uniformetasunean oinarrituriko bizimodu jakin bati ere. Funtsean, sistema horrek xede bihurtu du ekonomia, gainerako alderdi etikoak alboratuta.

Horren ondorioz, mundu bidegabe, berdintasunik gabe eta jasangaitz batean bizi gara, inolako zalantzarik gabe. Mundubatean, zeinetan pertsonen, sexuen, etnien eta herrien arteko diskriminazioa gero eta handiagoa baita; zeinetan herritarren parte batek soilik baitu erabakien gaineko kontrol demokratikoa eta teknologietarako, jakintzarako

Kapitalismoa

“Ekoizpen, banaketa eta kontsumo molde gailena –kapitalismoa– ez da jasangarria ekologiaren ikuspegitik; biolentoa da, egituraz, eta sozialki bidegabea, politikoki antidemokratikoa; eta ez da gai beragandik onura gehien ateratzen duten munduko biztanleriaren geruza mehe horietako pertsona asko zoriontsu egiteko ere”.

Jordi Garcia Jané

nahiz oinarrizko gizarte zerbitzuetarako sarbidea. Horrela, gero eta gehiago handituz doa pertsona, talde eta herri aberatsen eta pobreen arteko arrakala, eta bazterketaren eta prekaritatearen mehatxupean bizi dira gizarteko sektore zabalak.

Bereziki agerikoak dira produktibismo eta kontsumismo mugagabeen oinarrituriko eredu horren ingurumen mugak. Egitate zientifikoa da kapitalismoak ezarritako erritmo honek sekula ez bezalako larrialdi sozial eta ekologikoko egoera batera garamatzala. Erregai fosilak agortzea, baliabide naturalak ustiatzea, biodibertsitatea galtzea, berotze globala, ozono geruza hondatzea, arrasto ekologikoa... Giza jarduera planetan eragiten ari den inpaktuaren ezaugarri batzuk besterik ez dira, baina argi erakusten dute arlo ekonomikoan eta sozialean egiturazko aldaketa sakonak egiteko premia.

“Azken deia” manifestuaren pasarteak

“Krisi ekonomiko eta erregimenaren krisi bat baino askoz ere gehiago da hau: zibilizazioaren krisi bat da”.

“Ikertzaile eta zientzialari buruargienak alarmarako zantzu sendoak ematen ari zaizkigu XX. mendeko zazpigarren hamarkadatik hona: orain arteko hazkunde joerekin jarraituz gero (ekonomikoa, demografikoa, baliabideen erabilerarekikoa, gai kutsagarrien ekoizpenarekikoa eta desberdintasunen hazkundearekikoa), XXI. menderako ondorio probableena zibilizazioaren kolapsoa da”.

“Hazkundearen bidea jadanik kamera geldoan ikusitako genozidioa dela adierazten duten albisteak ugari dira gaur egun. Energia merkearen eskuragarritasunaren gainbehera, aldaketa klimatikoaren eszena katastrofikoak eta baliabideengatiko tentsio geopolitikoek erakusten dute aitzinamendurako joera zaharrak hausten ari direla”.

“Harrapatuta gaude zibilizazio batean zeina hazten ez bada ez baitabil eta hazten bada bera posible egiten duten oinarri naturalak suntsitzen baititu. Gure kultura teknozale eta merkatuzaleak ahaztu egiten du gu, erroetik, ekosistemen eta elkarren mendeko garela”.

“Planetak ezin du gizarte produktibista eta kontsumista mantendu. Zibilizazio berri bat eraiki behar dugu, gai izango dena bizitza duina bermatzeko gero eta baliabide gutxiago dituen mundu batean bizi den giza populazio erraldoi eta gero eta handiago bati (gaur egun, 7.200 milioitik gora). Horretarako, erroetiko aldaketak beharko dira bizimoduetan, produkzio moduetan, hirien diseinuan eta lurralde antolaketan: eta, batez ere, aurreko guztia gidatzen duten balioetan. Biosferarekin oreka berreskuratzea helburu izango duen gizarte bat behar dugu, ikerkuntza, teknologia, kultura, ekonomia eta politika helburu horretarako erabiliko dituen. Hori egiteko, ahalik eta irudimen politiko, eskuzabaltasun moral eta sormen teknikorik handiena beharko dugu”.

<https://ultimallamadamanifesto.wordpress.com>

2.1. Ekonomia kritikoak eta eraldatzaileak

Ekonomiak gaur egun daraman norabidea, haren funtzionamendua eta hark dakartzan gizarte eta ingurumen ondorioak ez dira saihestezinak, eta ez diote erantzuten berezko fatalitate bati, gizateriak eta planetak nahitaez jasan beharreko berezko fatalitate bati. Ekonomia garatzeko modua, gizarte antolaketaren beste arlo batzuk garatzeko modua bezala, historian zehar inposatuz joan diren pentsamendu jakin baten eta politika, arau eta jardun multzo baten ondorioa da.

Badira, ordea, bestelako ikuspegi alternatibo batzuk, zeinek aldarrikatzen baitute oso bestelako moduan pentsatu eta praktikatu beharko litzatekeela ekonomia. Ikuspegi alternatibo horiek pentsamendu kritiko bera dute neoliberalismo hegemonikoari buruz, eta orobat partekatzen dute kapitalismoarenez oso bestelako proposamen eta jardueren erreperitorio bat ere. Beren kritika bateratuaren muina da gaur egungo sistema ekonomikoak pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituela biztanleriako sektoreen artean, komunitate eta herrien artean, emakumeen eta gizonen artean... eta hondamen gero eta larriagoa eragiten duela bizitzaren erreprodukzioa bermatzeko beharrezkoak diren gizarte eta ingurumen baldintzetan.

Ikuspegi kritiko horien arabera, bestelako ekonomia bat ez da soilik posiblea: premiazkoa eta urgentea ere bada. Ekonomia bat, xedetzat izango ez dituen irabazi asmoa eta baliabideak metatuz, pertsonak ustiatuz edo ekologia hondatuz mozkinak handitzea. Aitzitik: ekonomia bat, zeinak kokatuko baititu bere jardunaren erdigunean pertsonak, beren harreman komunitateak eta komunitate naturalak, eta bizitza sozialki eta ekologikoki jasangarria izan dadin beharrezko zaintzak.

Ekonomia kritiko horiek joera eta interpretazio marxistez elikatzen dira, berez, oro har; baina, bereziki, ekonomia feminista eta ekologikoaren ekarpen berritzaileetatik elikatzen dira. Hain zuzen ere, orain arte kontuan hartu gabeko kategoria eta elementu batzuk jarri dituzte analisi ekonomikoaren erdigunean ekonomia feministak eta ekologikoak; erradikalak izanik proposamen sakonki eraldatzaileak atxikita dituzten kategoria eta elementu batzuk, hain zuzen. Berrikiago, ikuspegi horiek beste alderdi batzuk bere egin dituzte, hala nola, desazkundera, bizimodu ona, elikadura subiranotasuna eta (ondasun) komunak, besteak beste.

Bestalde, ekonomia eraldatzailetzat har litezke, arestian aipatutakoez gainera, teoria, printzipio eta balio kritikoetan oinarriturik ekonomiaren esparruak (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa) eraldatzea xede duten sareak edo mugimenduak osatzen dituztenak. Gutxi-asko erradikalak dira: batzuk indarrean dagoen sistema ekonomikoarekin batera bizi daitezke; beste batzuek, berriz, hartatik urrun dauden espazio autonomoak aldarrikatzen dituzte. Hortxe kokatzen dira ekonomia sozial solidarioaren, ongi komunekoaren, zirkularraren, kolaboratiboaren, komunitarioaren, partaidetzazkoaren eta abarren jardunak.

Nolanahi ere, zehaztu beharra dago "ekonomia berriak" izendapenak ekonomia eraldatzearekin zerikusi handirik ez duten bestelako jarduera batzuk biltzen ari direla berriki. Esaterako, ekonomia "kolaboratibo", "ekonomia digital" nahiz "plataformako" ekonomia gisa aipatzen dira logika kapitalistaren pean garatzen diren eta merkatu nitxo berriak zabaltzeko premiari erantzuten dioten jarduerak, pertsonen arteko loturan oinarrituak, oro har, teknologia berriak erabiliz kontsumo masiboko jarduera berriak bultzatzea xede dutenak.

Proposamen zenbait...

Ekonomia feminista analisi ekonomikoari genero desberdintasunen azterketa atxikitzen dion pentsamendu joera bat da. Joera horren xedea da ekonomia bat eraikitzea, zeinak integratuko eta aztertuko baititu emakumeen eta gizonen errealitateak eta erantzungo baitie emakumeen behar praktikoei (etxeari loturik sozialki onartutako eta komunitateak eta gizonek behar bezala estali gabeko roletatik eratorriak) nahiz interes estrategikoei (emakumeek gizartean duten mendekotasun, desberdintasun eta diskriminazio posizioarekin lotuak eta genero harremanak eraldatzea xede dutenak, emakumeen askatasuna, berdintasuna, autoestimua eta ahalduntzea areagotzeari begira).

Hala, ekonomia feministaren helburua da mundu sozial eta ekonomikoaren ikuskera berri bat lantzea, aintzat hartuko dituen biziraupenerako, pertsonen ongizaterako eta erreproduzio sozialerako beharrezkoak diren lan guztiak eta helburu izango dituen pertsonen bizi baldintzak. Ikuskera horretatik abiatuta, esparru sozioekonomikoan gertatzen diren genero desberdintasunak azalera ateratzen eta salatzen lagundu du, ekonomia kapitalistaren kritika erradikala egin du, eta sistema ekonomiko gailenari aurre egiteko alternatibak eraikitzen dihardu, beste ekonomia kritiko eta eraldatzaile batzuekin batera.

Ekonomia ekologikoak eredu ekonomikoaren jasangarritasuna aztertzen du, eredu horrek behar dituen materialen, energiaren eta hondakinen fluxuei erreparatuz. Ikuspegi honek ekonomiaren interakzioa identifikatzen du, biosferaren mendeko azpisistema dela kontuan hartuta eta planetaren muga ekologikoen barruan garatzeko premia duela aintzat hartuta.

Hala, ekonomia ekologikoak sistema naturalaren (biosfera) eta haren baitako azpisistema sozial eta ekonomikoaren arteko erlazioak aztertzen ditu, azpimarratuz bideraezina dela ekosistemen muga fisiko eta biologikoen kontra talka egiten duen etengabeko hazkunde ekonomiko bati eustea. Ekonomia ekologikoan, funtsezko elementuak dira ekonomia naturaren mugen barruan eta justizia sozialean oinarriturik garatzea, zeinak ez baitira aintzat hartzen ekonomia konbentzionalean.

Ikuspegi horretatik, **desazkundera** ekoizpen ekonomikoa murriztea aldarrikatzen duen pentsamendu politiko ekonomiko eta sozialeko joera bat da; hain zuzen ere, ekoizpena murriztea eskatzen du, orekatzeko erlazio berri bat ezartzeko gizakiaren eta naturaren artean, gizakien beren artean, hazkundera, produktibismoa eta kontsumismoa ekonomiaren motor gisa hartu gabe.

Azken batean, "gutxiagorekin hobeto bizitzea" proposatzen du, bizitzaren iraupena bermatzeko, sistema kapitalistak mehatxupearan jarri baitu, eta 8 irizpide hauetan oinarritzen du bere proposamena: berrebaluatu, berregituratu, birbanatu, birlokalizatu, birkontzeptualizatu, birziklatu, berrerabili eta murriztu.

Bizimodu Ona Latinoamerikako jatorrizko herrien berezko printzipio bat da, Sumak Kawsay kosmobisio kitxuan oinarritua, zeinaren ardatza baita gizakia, bere ingurune natural eta sozialetik bereizezina.

Ongi komuna bilatzen du, Ama Lurrarekiko harremanetik abiatuta, mugarik gabeko metaketaren orde. Emakumeak eta gizonak modu kolektiboan errealizatzea planteatzen du, balio etiko eta ekologikoetan oinarrituriko bizimodu harmoniko batean. Pertsonen beharrak asetzea bilatzen du, eta bizimodu duina garatzea, komunitatearekin eta naturarekin bakean eta harmonian, baita herrien kulturak babestea eta garatzea ere.

Elikadura subiranotasunak zera adierazten du: herriek beren nekazaritza eta elikadura politika bere egoerarako ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak izateko moduan definitzeko duten eskubidea. Horrek tokiko merkatua babestea eskatzen du: nazioarteko merkatuan merkeago saltzen diren gainerako produktuetatik eta ekoizpen kostuetatik beherako salmentatik babestea.

Vía Campesinak –nekazaritza arloko organizazioen munduko antolakunde handienak– finkatutako kontzeptua da, eta xede hauek ditu: tokiko nekazaritza ekoizpena lehenestea herritarrak elikatzeko; nekazariak lurra, ura, haziak eta maileguak eskuratzeko modua izatea; elikagaiak ekoizteko eskubidea eta horiek kontsumitzen dituztenek zer, nola eta nork ekoizita kontsumitu nahi duten erabakitzearen eskubidea, eta, azken batean, herriek nekazaritza politika definitzen parte hartzea eta nekazarien eskubideak aitortzea, nekazaritza ekoizpenean eta elikaduran funtsezko zeregina betetzen duten heinean.

Aipatu beharra dago, gainera, proposamen horiek guztiak askotariko ikuskeretan oinarrituak direla eta, beraz, pluralean izendatu beharko lirakeela.

2.2. Bizitzaren jasangarritasuna paradigma berri gisa

Ekonomia eta bizitzaren jasangarritasuna

“Ekonomia jasangarri bat, gizaki guztien beharrei erantzuteko lan egingo duena, gizakien mundu komun sozial eta naturalaren erreproduktzio ahalmenari eutsiz, ekoizpena eta merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzura jarritz”.

Cristina Carrasco

Hain zuzen ere, ekonomia feministatik, eta ekonomia ekologikoarekin loturik, paradigma berri bat garatu da azken urteetan, gaur egungo sistema kapitalista errotik kolokan jartzen duena eta ekonomiaren kontzeptua bera berriz definitzen duena: bizitzaren jasangarritasuna.

Ikuspegi horren arabera, hau da ekonomia: bizitzaren –bizitzaren gizarte nahiz ingurumen alderdien– erreproduktzio ahalmenari eutsiz, pertsonen premiak asetzeko eta bizitza duinerako baldintzak sortzeko behar diren baliabide eta prozesu sozialen multzoa.

Bere helburuen eta funtzionamenduaren erdigunean bizitzaren jasangarritasuna kokatzen duen ekonomia pentsamendu eta jarduera bat da, hortaz. Bide horretatik, pertsona guztien ongizatea eta bizitza duina bilatzen dira, pertsonak edozein ezaugarri dituztela ere eta planetako edozein tokitan daudela ere, betiere naturarekiko harreman iraunkorren.

Pentsamendu horren oinarrian, gure biziraupenerako funtsezko bi alderdi daude: pertsonak interdependenteak eta ekodependenteak gara.

Interdependenteak esan nahi du pertsonak beste pertsona batzuen zaintzaren eta haiekiko erlazioaren premia dugula. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, une batzuetan intentsitate handiagoaz eta beste batzuetan txikiagoaz, beste pertsona batzuen zaintza behar dugu. Eta, era berean, gure oinarritzko premiak asetzea loturik dago eratzten ditugun erlazio horiekin. Hala, ordaindu gabeko lanari ikusgarritasuna eta balioa ematearen aldeko apustua egiten da, generoak ekonomian betetzen duen eginkizunari buruz gogoeta egiteko tresna modura, eta errealitate berdintasunik gabeko eta bidegabea eraldatzeko proposamenak identifikatzen dira.

Ekodependenteak adierazten du bizi garen ingurune naturalarekiko lotura eta mendekotasuna dugun izakiak garela. Izan ere, naturak, haren baliabideek eta, oro har, ingurumen baldintzek ahalbidetzen dute planetaren bizigarritasuna eta bermatuko dute etorkizunean bizitza erreproduzitu ahal izatea.

Ikuspegi honetatik, interdependenteak eta ekodependenteak ezaugarrituriko bizi horien zerbitzura egon behar du ekonomiak, gure planetako bizi humano eta ez-humano guztiaren ingurumen baldintzei eustea bermatzeaz gainera.

Bistakoa dirudi bizitzaren jasangarritasuna kokatu beharko litzatekeela gizarte, politika edo ekonomia prozesu ororen erdigunean, planetaren eta gizateriaren biziraupen senagatik besterik ez bada. Baina sistema kapitalistaren garapenak, eta, horri loturik, pentsamendu neoliberalarenak, esan dugunez, balioa galarazi dio bizitzari eta salgai bihurtu du bizitza bera. Kapitalismoarentzat, balioa duen gauza bakarra emaitzen kontuan adieraz daitekeen ekonomia jarduera da, izan produktiboa nahiz ez-produktiboa, eta irabaziak areagotzeko

kate amaigabe bat sortzen du horrela, zuzenean nahiz zeharka eragiten dituen gizarte eta ingurumen ondorioez batere kezkatu gabe.

Hain zuzen ere, bizitzaren erreprodukzioari eta pertsonen zaintzari loturiko eginkizunak ezkutatu ditu sistema ekonomiko honek. Historikoki emakumeek egindako eginkizunak, ordaindu gabe egiten direnak, edo, ordainduak izatekotan ere, baldintza prekarioetan egiten direnak, eta, betiere, sozialki behar bezala aintzatetsi gabeak. Agerikoa da, ikuspegi horretatik, zer-nolako kontraesana duen kapitalismoak bizitzari eustearekin.

Hala, bizitzaren iraunkortasunaren paradigmak planteatzen du, gaur egun, ekonomiaren ikuskerarekiko kritikarik sakonena, eta haren jarduerak errotik eraldatzea aldarrikatzen du, pertsonak, planeta eta haren jasangarritasuna jartzeko eraikuntza politiko, sozial eta ekonomikoaren erdigunean.



3. Proposamen alternatibo bat: ekonomia solidarioa

3.1. Ekonomia solidarioaren definizioa eta printzipioak

Kapitalismo modernoaren hasieratik beretik izan dira sistemak berak eragiten zituen berdintasunik ezaren eta bidegabekeriaren arazoei erantzuteko hainbat ekimen. Ekonomia justizia sozialaren irizpideetatik ulertzeko eta egiteko beste modu baten parte gisa hartu dira esperientzia horiek, baita funtzionamendu kapitalistak eragindako ondorio kaltegarrien multzoari kontrajarriztat ere.

Jarduera alternatibo horien parte handi bat izendatzeko “ekonomia soziala” kontzeptua erabili izan da XIX. mendearen amaieratik, lehen kooperatibak eta mutuak sortu zirelarik. Ekimen haien xedea zen orduko enpresek aintzat hartzen ez zituzten langileen premiei erantzutea: hala, kontsumo kooperatibak sortu ziren soldata txikiak zituztenek elikaduraren kostuei aurre egin ahal izateko; mutualitateak, gaixotasunaren edo heriotzaren ondoriozko premiei erantzuteko; egunkari kooperatiboak, lan arloko errealitatearen berri emateko, etab. Urteen joanean, esperientzia horiek beste sektore batzuetara zabalduz joan ziren, eta askotariko elkarte formulak hartu zituzten. Lan elkartuko lehen kooperatiben sorrera izan zen, agian, mugimendu haren hurrengo mugarri handia: haiei esker, langileek aukera zuten beren enpresen jabe izateko, bai erabakiak hartzeari nahiz partaidetzari dagokienez, bai kapitalari eta sortutako irabaziei dagokienez.

Ekonomia sozialak askotariko garapenak izan ditu abagunearen eta testuinguru geografikoaren arabera, baina honako printzipio hauetan bat datozen esperientziak bildu ditu: pertsonak eta xede soziala jartzea kapitalaren gainetik; borondatezko atxikimendua; antolakundearen kontrol demokratikoa; kideen eta sozietatearen arteko interes batasuna; erantzunkidetasun eta subsidiarotasun irizpideak aplikatzea; bestelako eragile edo botere publiko eta pribatuekiko autonomia, eta soberakinak beren kideentzako eta interes orokorreko zerbitzuak garatzera bideratzea.

Gaur egun, printzipio horiek ez ezik, osagai dituen enpresa modalitateek erregulatzen dute ekonomia soziala. Erregulazio hori ez da nazioartean uniforme, formula horiek molde desberdinak hartzen baitituzte legedien arabera. Espainiako estatuan, ekonomia sozial modura aitortzen dira kooperatibak, lan elkarteak, mutualitateak, jarduera ekonomiko duten fundazioak eta elkarteak, enplegu zentro bereziak, laneratze enpresak, arrantza kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak eta aipatutako printzipioetan oinarriturik sor litezkeenak.

Hain zuzen ere, ekonomia sozialaren bilakaera historiko horretan kokatu beharra dago “ekonomia solidarioaren” jaiotza eta bultzada. Profil bereziko azpiespazio bat da ekonomia solidarioa, kontzeptu eta jarduera berezituak dituela kontuan hartuta, baita gizarte mugimendu gisa kontuan hartuta ere; eta, eremu geografiko guztietan hein berean ez bada ere, gero eta garrantzi akademiko, sozial eta ekonomiko handiagoa hartzen ari da.

Gaur egungo ekonomia kapitalistak oinarri dituen lehentasunen sistemaz bestelako ulerkera batetik abiatzen da ekonomia solidarioa. Ekonomia solidarioaren ikuspegiak eta jarduerak garapen pertsonal eta komunitarioa laguntzeko bitarteko modura –eta ez xede modura– aldarrikatzen dute ekonomia; pertsonen eta beren ingurune sozial eta naturalaren bizi kalitatea hobetzen laguntzeko tresna modura.

Ekonomia solidarioa...

“...ekonomia sozialaren enbor beretik sortzen da, eta harreman ekonomikoak parametro desberdinetatik berrezartzeko ahalegina da. Kapitalaren logikaren aurrean, esparru publiko zein pribatuen merkantilizazio handiagoaren aurrean, ekonomia solidarioak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarrituriko ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantziazio harremanak eratu nahi ditu. Kapitalaren eta bere metaketaren aurrean, ekonomia solidarioak pertsonak eta euren lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean, eta beti-beti pertsona guztien ongizatearen eta planetako bizitzaren ugalketaren zerbitzura dagoen zeregin instrumentala ematen die merkatuei.

Ekonomia solidarioaren terminoa kontzepzio eta ikuspegi teorikoen, errealitate sozio-ekonomiko eta instituzionalen eta enpresa nahiz elkarte jarduketan multzo heterogeneoa da. XX. mendeko azken laurdenetik aurrera, hain zuzen ere, ekonomiak eta prozesu ekonomikoek gaur egungo gizarteetan duten zeregina ulertzeko modu desberdin batekin bat egiten dute”.

Juan Carlos Pérez de Mendiguren,
Enekoitz Etxezarreta eta Luis Guridi

berri bat iradokitzen dutenak. Eta, era berean, ekonomia solidarioa ongi zedarritu eta definitutako joera dela esan liteke, nahiz eta oraindik haren garapen kontzeptuala sakontzen ari den, gero eta interes akademiko handiagoa sortzen duen eta sektore generiko edo neutroago batzuetatik –hala nola, hirugarren sektoretik edo ekonomia sozialetik, juridikoki ulertua– kanpoko mugimendu eta jarduera bereizi gisa konfiguratzeko den.

Ikuspegi horretatik, jarduera eraldatzaile sakona da ekonomia solidarioa, aurrez aurre talka egiten baitu gure munduko jarduera ekonomikoaren eredu konbentzionalarekin, kapitalaren eta kapital metaketaren gaineratik dagoen balio bat ematen baitie pertsonari, haien premiei, ahalmenei eta lanari, baita bizitzari eusteko gizarte eta ingurumen prozesuei ere, eta eredu sozioekonomiko birbanatzaileagoa eta ekitatiboa aldarrikatzen baitu, aldi berean. Hala, ekonomia sozialaren enbor komunitate haratago, izaera ekonomiko soila baino gehiago, izaera nabarmen politikoa duten ekimen eraldatzaileak biltzen dira esparru honetan.

Oro har, ekonomia eraldatu nahi du mugimendu honek, era honetako balioetatik abiatuta: elkarrekikotasuna, lankidetzaren, inklusioa, ingurumenaren zaintza, komunitatearekiko konpromisoa, emakumeen eta gizonen arteko ekitatea, erabakiak hartzeko eredu demokratikoak garatzea, finantza tresnak eta aberastasuna baldintza etikoetan oinarritzea, berrikuntza ekonomikoa tokiko giza garapenaren zerbitzura jartzea...

Jakina, ekonomia solidarioa ezin har liteke gaur egungo sistema kapitalistaren alternatiba gisa aurkezten den eredu ekonomiko amaitu modura; baina ukazina da elementu ugari dituela, beste proposamen kritiko eta eraldatzaile batzuek bezala, ekonomia errotik alternatiboa ulertzeko eta praktikatzeko modu

Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna (laburpena)

1. Ekitatea

Pertsona guztiek duintasun, eskubide eta aukera berdinak dituztela onartzea, betiere haien arteko desberdintasunak aintzat hartu eta errespetatuz.

2. Lana

Enplegu duina sortzearen aldeko apustua egitea, baita gizartean beharrezkoak diren lan guztien (lan produktibo nahiz erreproduktibo) banaketa ekitatiboaren aldekoa ere, merkatutik pasatu ez arren emakumeen eta gizonen bizi kalitaterako funtsezkoak direnak barne.

3. Ingurumen jasangarritasuna

Jarduera ekonomikoen muga gisa, planetako bizitzaren orekaren defentsa gisa eta etorkizunera begirako konpromiso gisa.

4. Kooperazioa

Jarduera ekonomikoa partaidetzan eta demokrazian oinarritzea, ikaskuntza, lankidetzazko eraikuntza eta lan kooperatiboa sustatzeko.

5. Irabazi asmorik eza

Balantzeetan kontuan hartzea, emaitza ekonomikoak ez ezik aberastasunak birbanatzea eta berrinbertitzea ere, ondasunak metatu edo haiek modu espekulatiboan erabili ordez, irabazien banaketa alboratuta.

6. Ingurunearekiko konpromisoa

Beste organizazio eta sare batzuekiko lankidetzazko, esperientzia zehatz horien bidez eredu sozioekonomiko alternatibo bat sortzeko bide gisa.


REAS-Ekonomia solidario eta alternatiboaren sarea
www.economiasolidaria.org/carta-de-principios

3.2. Ekonomia solidarioko jarduerak, tresnak eta sareak

Askotariko definizioak eman badaitezke ere, ekonomia solidarioa hauxe da, nagusiki: aipatu direnen moduko printzipio eta balioetan oinarrituriko jardueren multzo bat, zeinak irudikatzen baititu kapitalismoaren alternatiba gisa arituko den jarduera ekonomiko baten nondik norakoak. Jarduera eraldatzaile horietatik harago, ordea, mugimendu –ekonomiko, sozial eta politiko– bat eraikitze prozesu beti amaitugabe bat ere bada: beste sare eta mugimendu batzuekin bat eginik, tokiko gizartea nahiz mundu globala eraldatzeko asmoa duen mugimendu baten eraikuntza.

Hau da, ekonomia solidarioak gizarte eraldaketaren zerbitzurako tresna izaera ematen dio jarduera ekonomikoari. Lurraldea eta ekonomia eraldatzen ditu mugimendu horrek, eta jarduera ekonomiko alternatibo biziagoa sortzen du, sarean lan eginez eta beste mugimendu eta ekimen eraldatzaile batzuekin aliantzak sortuz, kulturaren eta balio indibidual nahiz kolektiboaren aldaketarako sentsibilizazioa eta lana sustatuz, tokiko politika publikoen esparruan sakonduz, etab.

Hala, ekonomia solidarioa ziklo ekonomikoaren arlo guztietan dago presente (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa), eta guztietarako proposamen eta alternativa praktikoak eskaintzen ditu. Mugimendu honek bere baitan biltzen ditu ondasun eta zerbitzu ekoizpenaren sektore askotan diharduten enpresa proiektu sozial eta kooperatiboak, finantza ekimen etiko eta alternatiboak, tokiko produktuak eta nekazaritzako produktu ekologikoak sustatzen dituztenak, esku-hartze sozial eta komunitarioko jarduerak, gizarteratze eta laneratze enpresak, beste arlo askotako ekimenak, hala nola, bidezko merkataritza; hondakinak berreskuratzea eta berrerabiltzea; energia berriztagarriak sortzea eta merkaturatzea; etxebizitza eta lur kooperatiboen sustapena; kultura ekoiztea eta hedatzea; truke sareen, denbora bankuen nahiz tokiko moneten bidez tokiko berrikuntza eta berrikuntza komunitarioa sustatzea; aldaketa eko-sozialari buruzko sentsibilizazioa eta heziketa, etab.



Ekimen horietako asko, aurrerago ikusiko dugunez, ekonomia solidarioa sustatzeko eta handitzeko tresna bihurtzen dira: adibidez, finantza etiko eta alternatiboak, merkatu sozialak, hedapen eta sentsibilizazio estrategiak, gizarte ekintzailtza edo moneta sozialak, besteak beste. Baina azter dezagun esangura berezia duen bat: auditoretza soziala.

Ekonomia solidarioaren printzipioak aurkeztu ondoren, planteatu daiteke nola berma litekeen ekonomia horretan parte hartzen duten enpresa eta entitateek benetan erantzuten dietela ekonomia solidarioaren berezko balioei, eta, bereziki, nola jakin dezaketen herritarrek beren ekimena eraldatzailea izaten ari dela.

Kezka horretatik abiatuta, adierazle eraginkor batzuen bidez praktika errealak printzipioei egokitzen zaizkien ebaluatzeko analisi edo egiaztapen tresnen premia sortzen da. Tresna propioak behar dira merkatu kapitalistaren egiaztapenen logikatik at ekonomia solidarioko jardueren ekarpenak balioetsi, haien saiama eta gabeziak ebaluatu eta, aldi berean, hobekuntza iraunkorrerako tresna gisa erabiltzeko. Horrek gardentasunaren balio erantsia atxikiko die, zeina baita konfiantza berme hobea.

REAS-Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareak Balantze Soziala edo Auditoretza Soziala deritzon tresna bat garatu du (lurraldean arabera zenbait aldaera ditu).

REASek mugimenduaren errealitateari egokitzen zaion Auditoretza Sozialeko proposamen bat garatu du, modu kolaboratiboan, Ekonomia Solidarioaren Gutuneko sei printzipioen betetze maila ebaluatzeko adierazle kuantitatibo eta kualitatibo sorta batean oinarritua. Hura betetzea eta komunikatzea "konfiantza zigilu" moduko bat da, enpresa edo entitateari eta haren produktu eta zerbitzuei ekonomia solidarioaren merkaturan sartzeko aukera ematen diena.

Baina tresna honek badu beste balio erantsi bat: aukera ematen du merkatu sozialean parte hartzen duten entitate guztien datuak biltzeko, eta, hortaz, erraztu egiten du ekonomia solidarioaren sektoreak lurralde jakin batean duen egoera komunikatzea eta bistartzea.

Azkenik, adierazi denez, ekonomia solidarioa mugimendu bat da. Ezin uler daiteke haren garapena sareko lanik gabe, hura osatzen duten ekimen eta tresnen arteko artikulaziorik gabe, betiere haien dibertsitatea eta pluraltasuna abiapuntu harturik.

Hala, ekonomia kritikoen esparruan ekarpen berriak egiteaz gainera, planeta osoan ekonomiaren gainera pentsamendu eta jarduera alternatiboa eta solidarioa sortzen ari diren organizazio eta ekintza multzo bat biltzen duen mugimendu gisa egituratzen ari da azken hamarraldietan ekonomia solidarioa.

Mugimendu bat, lan egitura jakin batzuk eratzen ari dena maila lokal, erregional nahiz globalean eta erronka nagusitzat duena gizartea eraldatzen eta eredu sozioekonomiko alternatibo bat sortzen lagunduko duten esperientziak –maiz testimonialtzat hartuak– garatzea.

Ikuspegi horretatik, funtsezko eginkizuna du interkooperazioak ekonomia solidarioaren garapenean. Izan ere, aukera ematen du ekimen horien benetako inpaktua bistartzeko, haiek hazten laguntzeko, gizarteko sektore gehiago erakartzeko edo finantzaketa

Nola neurtu Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateei atxikitako gizarte errentagarritasuna?

"Gure apustua da Auditoretza Soziala erabiltzea. NEF (New Economics Foundation) fundazioaren arabera, Auditoretza Sozialaren prozesuak aukera ematen die organizazioei beren «gizarte eraginkortasuna» eta portaera etikoa neurtzeko, beren helburuak aintzat hartuta, halako eran non beren emaitza sozialak hobetu ahal izango baitituzte eta beren jarduerak eragiten dien pertsona guztiei eman ahal izango baitiete horien kontu. Beren eta inplikaturako gainerako aktoreen inpaktu sozial eta solidarioa beren helburuen eta balioen arabera neurtzeko, ebaluatzeko eta zuzentzeko tresna bat da. Labur esanda, hiru kontzeptu hauen uztarketa litzateke: autoebaluazioa, gardentasunaren konpromisoa eta kudeaketa tresna".

Amaia Naveda

nahiz merkaturatze tresna partekatuak sortzeko. Bestalde, "sarean" haztea ekonomia solidarioaren berezko ezaugarria da. Ekonomia solidarioaren balioak eta logikak (partaidetza, autogestioa, kooperazioa, etab.) ez dira mantentzen errazak neurri handiko enpresetan, eta, ildo horretatik, beharrezkoa da formula alternatiboak bilatzea haren printzipio alternatiboekiko koherentzia bermatuko duten unitateek osatutako enpresa sareak sortzeko.

Sareko ekonomia solidarioa

REAS Ekonomia alternatibo eta solidarioen sarea 1995ean sortu zen, eta egitura konfederala du; gaur egun (2019), lurraldekako 15 sare eta sektorekako 4 sare biltzen ditu Espainiako estatuan: finantza etikoak (Finantza Etikoen Mahaia), bidezko merkataritza (Bidezko Merkataritzaren Koordinakundea), energia berriztagarriak sortzeko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko kooperatibak (Berriztagarrien Batasuna) eta hondakinak berreskuratzekoak (AERESS: Ekonomia sozialaren eta solidarioaren berreskuratzaileen Espainiako elkarte).

www.economiasolidaria.org

Sareak autonomoak dira, eta beren estrategia propioak garatzen dituzte lurralde eta sektore bakoitzean. Hala, REAS Euskadik (1997an eratua) ekonomia solidarioaren printzipioekin konprometitutako 70 enpresa, entitate eta elkartegintza proiektutik gora biltzen ditu; guztien artean, 3.000 lagun inguru enplegatzen dituzte, 135 milioi euro inguruko diru sarrerak dituzte, guztira, eta milaka boluntario edo bazkide biltzen dituzte.

www.reaseuskadi.eus

Mundu mailan, RIPPES-Ekonomia sozial solidarioa sustatzeko nazioarteko sarea dago. Kontinentekako sareek osatzen dute (Latinoamerika eta Karibe, Ipar Amerika, Europa, Afrika, Asia eta Ozeania), eta kontinentekakoetan lurraldekako sareak daude txertatuta, baita nazioarteko beste sare eta mugimendu sektorial batzuk ere. Oro har, ekonomia solidarioko milaka ekimen biltzen dituzte, munduko geografia guztian gero eta presentzia handiagoa dutenak.

www.ripess.org

4.1. Dirua eta finantzak ekonomian

Ekonomia primitiboetan, ez zen dirurik. Bai, harrigarria iruditzen zaigu, hain barneratuta baitugu diruak gure bizitzan betetzen duen eginkizuna non gizateriaren historiarekin berarekin batera sortu zela iruditzen baitzaigu. Lehen giza komunitateetan, ordea, ondasun edo lanen trukea baliatzen zuten pertsonen premiak asetzeko. Are gehiago: "dohainaren ekonomia" izenda genitzakeen jarduerak garatzen ziren, zeinetan eskaintzen baitziren ondasunak eta zerbitzuak bestelako saririk aitortzen ez zuen inolako akordiorik gabe.

Trukearen zailtasunek bultzatuta, ordea, ondasunak erabiltzen hasi ziren truke jarduera errazteko. Hala, trukerako bitarteko modura erabiltzen ziren ondasun haiek lehen dirua bihurtu ziren, nolabait esateko. Historian zehar, askotariko ondasunak erabili dira ordainketa bitarteko orokor gisa. Denborak aurrera egin ahala, balio egonkorra izango zuten ondasunak bilatu dira, balio handia izango zutenak bolumenarekin alderatuta, eta eskakizunei erantzuteko kantitate nahikoan eskuragarriak. Orobat bilatu izan da erraz biltegitzeko moduko ondasunak izatea, aise garraiatu ahal izatea, banagarriak izatea, aldaezinak izatea eta iragankorrak ez izatea.

Diruaren historia Mesopotamian hasi zen, K.a. 2500. urte inguruan, metal bitxiak diru modura erabiltzen hasi zirenean. Lehen txanponak K.a. VI. edo VII. mende inguruan jo zituzten. Baina dirua, gaur egun ezagutzen dugun moduan, tresna berri samarra da. Kontuan hartu beharra dago 1787an hasi zirela lehen dolarrak egiten AEBn. Aurrerago, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, herrialde aliatuek finantza sistema berri bat finkatu zuten Bretton Woodseko akordioen bidez, zeinetan ezartzen baitzen dibisa guztiak Estatu Batuetako dolarretara bihurtu izango zirela eta Estatu Batuetako dolara baino ezin izango zela bihurtu urre barra, ontzako 35 dolarrean, atzerriko gobernuentzat; horrela desagertu zen "urre patroia" zeritzona eta hasi zen gaur egungo diruaren historia.

Sarrera horren bidez, nabarmendu nahi da dirua ez dela gizateriaren historia guztian zehar berdin ulertu, eta dirua sortu aurretik eta dirua sortuz geroztik ere beste era bateko truke eta dohain molde batzuk izan direla. Azpimarratu beharra dago, halaber, gaur egun erabiltzen dugun diruaren jatorria nahiko berria dela.


Baina zehaztapen horietatik haratago, kritika ekonomikoaren ikuspegitik galdetu beharko genuke zer funtzio betetzen duen diruak gure gizarteetan eta ekonomia kapitalistaren konfigurazioan.

Lehenik eta behin, esan beharko genuke "dirua", jatorrian trukerako bitarteko gisa zuen izaeratik haratago, gure bizitzak baldintzatzen dituen fetitxe moduko bat bihurtu dela. Hain zuzen ere, gure bizitza baldintzatzen du, beharrezkoa dugulako gure premiak asetzeko. Hala ere, gure bizitzetan sakon errotuta dago dirua grinaz metatzeko jarrera eta jarduera. Hortaz, esan beharra dago diruak itxura neutrala duela, izan, baina dirua metatzea desberdintasunen eta bidegabekeriaren iturri bihurtzen dutenen edo, beste era batera esanda, dirua kapitala metatzearen zerbitzura jartzen denean hartaz egiten den erabileraren ondorioak ezkututzen dituztenen erantzukizuna gordeta dagoela haren atzean.

Era berean, diruak erlazio asimetrikoak eta botere erlazioak eraikitzen ditu dirua metatzen dutenen eta diru aski ez dutenen artean, dirua administratzen dutenen eta subjektu pasibo direnen artean, kapitalaren jabe direnen eta ez direnen artean, mailegatzen dutenen eta zor dutenen artean... Desberdintasun horiek bereziki agerikoak izan dira emakumeen eta gizonen artean, dirua edukitzeari eta administratzeari dagokionez, gizartean nahiz familia eremuan bertan. Diruak, logika kapitalistaren barruan, areagotu egiten ditu pertsonen, gizataldeen eta herrien arteko botere harremanak eta desberdintasun politiko eta ekonomikoak.

Kontuan hartu behar dugu, halaber, askatasunaren bermea ere badela dirua. Diruak aukera ematen du premiak estaltzeko eta bizi proiektu duinak garatzeko. Hori dela eta, ekonomia solidarioarentzat funtsezko elementua da diruaren birbanaketari buruzko analisi kritikoa.

Bestalde, kapitalaz eta, batez ere, "aberastasunaz" mintzo garenean ez gara ari soilik diruaz (zeinak izan baititzake askotariko formatuak), eta ez dagokio "ekonomia erreala" deritzonari soilik. Ekonomiaren barruan, "finantza kapitalari" dagokion alderdia ere sartzen da. Hain zuzen ere, alderdi horrek hartzen du gaur egungo kapitalismoan fluxu ekonomikoen gehiengoa, eta horregatik esaten da "ekonomia finantziarizatua" dela.



Modu sinplean adierazita, honela defini liteke finantza kapitala: kapitalari errenta ateratzeko asmoz finantza entitateetan inbertitutako dirua; hau da, jarduera produktiboan inbertitutakoa ez den kapitala. Inbertsioen bidez lortutako errenta eta gehigarri horiek, zeinak ez baitira, berez, diru "erreal", espekulatiboa baizik. Oro har, botere handia duten finantza monopolio jakin batzuetan biltzen eta sortzen dira inbertsio horiek. Produktu jakin batzuen bidezko espekulazioa –adibidez, zor sorten salmenta bidezkoa– izan zen 2007ko munduko azken finantza krisi handiaren oinarria.

4.2. Ekonomia berri baterako finantza etikoak eta alternatiboak

Ekonomia solidarioaren bidez, herritar antolatuen esku egongo diren finantza ekimen alternatiboak sortzea ere bilatzen da. Lehenik eta behin, beharrezkoak direlako ziklo ekonomiko osoa betetzeko (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa); alderdi horretatik, ekonomia solidarioaren beraren garapenaren zerbitzura diharduen tresnaren balioa hartzen dute.

Bigarrenik, arlo horretan jarduteak diruarekin duten harremanean finantza tresna bat ez ezik ekintza politikorako tresna bat ere proposatzen dielako pertsoneri, diruarekin zer harreman duten. Pertsonen eguneroko kontsumoaren beste alderdi batzuekin gertatzen den bezala, finantza etikoek nolabaiteko militantzia ekonomiko bat proposatzen dute gizartea eraldatzeko, kontuan hartuta diruaz egiten dugun erabilerak sistema bidegabe bati eusten lagun dezakeela, edo, aitzitik, eredu alternatibo, etikoago, ekitatiboago eta solidarioago batzuk eraikitzeke oinarriak finkatzen lagun dezakeela.

Finantza etikoen printzipioak

Etika aplikatua: etika, ulerturik inbertsio eta mailegu irizpideak aplikatzean egin beharreko etengabeko gogoeta prozesu gisa.

Partaidetza: erabakiak modu demokratikoan hartzea. Kontua ez da bazkideek botoa ematea soilik; entitatearen oinarritzko politikak definitzen ere parte hartu behar dute.

Koherentzia: dirua gure balioekin bat datorren moduan erabiltzea.

Gardentasuna: jarduera guztiei eta haien ondorioei buruzko informazioa eman behar da aldian-aldian eta jendaurrean.

Inplikazioa: finantzaketa etikoko entitateek irizpide negatiboetatik haratago jo behar dute, eta irizpide positiboek jarraituz definitu behar dute beren inbertsio politika, gizartea eraldatzeko. Printzipio etikoek eragin sakona dute entitatean, ez soilik haren jardunean, baita haren jarrera eta konpromisoan ere.

www.fets.org

Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko

Oro har, ekonomia solidarioaren esparruan, finantza etikoen modalitateek era honetako jarduerak biltzen dituzte:

- gizarte eraldaketarako inpaktua dakarten jarduerak finantzatzea (proiektu sozialak, ekologikoak, kulturalak edo solidarioak), bidegabekeriari eta gure munduaren hondamenari eusten laguntzen duten jarduera espekulatiboetan edo enpresetan inbertsiorik egin gabe;
- arduraz aurrezteko eta inbertitzeko tresnak eskaintzea herritarrei, eta herritarrek modu aktiboan parte hartzea finantza tresna eraikitzen eta kontrolatzen.

Era berean, argi dago ekimenek ez dutela irabazi asmorik, eta ikuspegi errotik alternatiboa dutela errentagarritasunari buruz, finantza eta banku arloan konbentzionalki erabiltzen denaren oso bestelakoa. Horrela, bideragarritasun eta jasangarritasun tekniko eta ekonomikoa beharrezkoak diren arren, baztertu egiten dituzte errentagarritasunaren eta irabazi ekonomikoaren helburuak.

Bestalde, ekimen hauek tokiko errealitateetan txertatuta daude, ezinbestean, eta gizarte mugimenduei loturik, ez soilik ekonomia solidarioko mugimenduei, baizik eta jarduera eta alternatiba eraldatzaileak bultzatzen dituzten guztiekin (gizarte bazterketaren kontrako borroka, nazioarteko solidaritatea, elikadura subiranotasuna, feminismoa, ekologismoa...). Hain zuzen ere, organizazio sare horiek euskarria ematen diote dentsitate handiena duten eta inpaktu zabalena bilatzen duten ekimenen eraikuntzari eta garapenari (banku etikoaren kasuan, esaterako).

Finantza etiko eta alternatiboen adibideak

REFAS (Finantza alternatibo eta solidarioen sarea)

Espainiako estatuan, 15 entitatek osatuta dago, eta jarduera parabankario edo banku arloko jarduera garatzen du, lurraldean oinarriturik. Hurbileko aurrezkiak biltzen du, tokiko premia pertsonal edo kolektiboak estaltzera bideratutako maileguak emateko. Banketxe komertzialenez bestelako finantza zirkuitu alternatibo batzuen bidez, ekonomia errealean, pertsonen ekonomian, eragiten duten eta banku entitate konbentzionalek finantzatzeko ahalmenik ez duten proiektuak sustatzen ditu.

www.refas.org

Coop 57

Banku arloko finantza zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatiba bat da, zeinaren helburu nagusia baita gizarte eraldaketa laguntzea. Funtzio nagusia du ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzea, finantza bitartekaritzaren bidez. Horrek esan nahi du gizarte zibilaren aurrezkiak biltzen eta erakartzen dutela, enplegua, kooperatibismoa, elkartegintza eta solidaritatea, oro har, sustatzen duten ekonomia sozial eta solidarioko entitateetara bideratzeko. Katalunian sortu zen, eta oso errotuta dago bertan; Espainiako estatuko beste lurralde batzuetan sailak irekitzen joan da.

www.coop57.coop

Oikocredit

Finantza etikoen nazioarteko kooperatiba bat da, xede duena herrialde “garatu” deritzenetako pertsona eta organizazioen aurrezkiak herrialde pobretuetan gizarte edukiko enpresa proiektuak finantzatzera bideratzea. Maileguak eta kreditu eta inbertsio lerroak eskaintzen du 60 herrialdetan diharduten 700 organizazio bitartekariren bidez.

Banco Palmas

Brasilen sortutako lehen banku komunitarioa da. Palma moneta soziala erabiliz, Fortalezako Conjunto Palmeiras favela auzoko bizi baldintzak hobetzeko lanean dihardu. Auzoko auzokideen elkartetik sortu zen ekimena. Sistema berritzaile baten bidez, ekoizpenerako kredituak banatzen ditu errealetan (moneta legala), berme, ondare edo errenta baldintzarik eskatu gabe, baita kontsumorako kredituak ere, palmetan, beste pertsona batek bermea jarrita. Auzoko denda sare osoak onartzen du palma diru gisa.

Fiare Banca Etica

Herritar antolatuen eskuetan dagoen banku bat da (hau da, banku modura erregulatuta dago), akzioen bidez sozietate kooperatibo modura eratua; gaur egun, Italiako eta Espainiako lurraldeetan dihardu. Kooperazioa eta solidaritatea sustatzea ditu helburu, eta banku zerbitzuak eskaintzen dizkie herritarrei (kontu korronteak, aurrezki eta inbertsio produktuak, kreditu txartelak...), zerbitzu espezifikoak entitateei, baita maileguak ere gizarte eta ingurumen inpaktu handiko ekimenei.

www.fiarebancaetica.coop


5.1. Bizitzarako beharrezkoak diren lanak eta enpleguak

Norbaiti bere lanaren ezaugarriei buruz galdetzen badiogu, erantzun hauek emango dizkigu, seguru asko: lanean edo langabezian dagoen, zer soldata jasotzen duen, bere lanpostuaren baldintzak duinak ala prekarioak diren, lanak ikasitakoarekin loturarik baduen ala ez, nagusiek zintzo jokatzten duten ala ez, sindikatuta dagoen ala ez... Labur esanda, ordaindutako enpleguari buruz hitz egingo digu. Izan ere, ordain ekonomiko baten truke egiten den eskuzko jarduera edo jarduera intelektual oro jotzen dugu, oro har, lantzat.

Lanaren kontzeptualizazio hori industria iraultzarekin garatu zen, bereziki, eta ekonomiaren historian aztergai nagusi izan da, bai kapitalismoarentzat, bai kritika marxistarentzat.

Ekonomia feministatik, baina, sakon kritikatu dira ikuspegi ekonomiko nagusiak, merkatuaren barruan gertatzen dena hartzen baitute aztergai nagusitzat eta ez-ekonomikotzat jotzen baitituzte bestelako lanak: ez direnak garatzen ondasun eta zerbitzu ekoizpenaren baldintza kapitalisten mende, soldatapeko lan harremanen edo auto-enpleguaren esparruan.

Ikusmolde horren arabera, ekoizpena etxetik kanpo egiten den jarduera da, eremu publikoan egiten dena, eta nagusiki maskulinoa da. Aitzitik, etxeko lana eremu pribatuan egiten da, ordaindu gabe, eta emakumezkoen jarduera eremua da, nagusiki.



Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko

Ezinbestekoa da ulertzea kapitalismoak sistematikoki ikusezin bilakatu dituela bizitzaren eta pertsonen zaintzen erreproduzio sozialarekin lotutako lanak, eta ekonomiaren "icebergean" ezkutatuta geratu direla. Lan horiek emakumeek egin izan dituzte historikoki, ordainsaririk jaso gabe edo baldintza prekarioetan jardunda, eta inoiz ez dute jaso behar besteko aitorenpenik, eta ez dituzte baloratu, ez ekonomikoki, ez sozialki.

Hori dela eta, ekonomia feministak zalantzan jartzen du merkatuari lotutako ekonomia bakarrik aitortzen duen ikuspegi dualista hori, eta zirkuitu ekonomikoetan sartzen du dirurik ez darabilen ekonomia (ez-monetazko ekonomia).

Horregatik, lehenik eta behin, ekonomia solidarioak eta ikuspegi ekonomiko kritiko eta eraldatzaile orok zalantzan jarri behar du lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko bereizketa hierarkiko hori, baita bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak diren lanen eta ordaindutako enpleguen artekoa ere. Eta ekonomia horien proposamenek, aurreko alderdi hori onartzeaz gain, bizitzarako beharrezkoak diren lan guztiak berrantolatu behar dituzte. Ondorioz, lan horiek egiten duten ekarpenari merezi duen balioa eman behar zaio; zereginak modu orekatuan banatu behar dira emakume eta gizonen artean (eremu publiko zein pribatuan), eta eztabaidatu egin behar da zer lanek egon behar duten merkatuari eta, hortaz, lan harremanei lotuta, eta zer baldintza izan behar dituen lotura horrek. Azken batean, berraztertu egin behar da zein diren bizitzaren sostengurako beharrezko lanak eta enpleguak, eta lehentasuna eman behar zaie.

Bestalde, ekonomia solidario jasangarritik ordaindutako lanen izaera bera jarri behar da zalantzan. Lan jakin batzuk beharrezkoak diren ala ez galdetu behar diogu geure buruari, eta horien ekoizpenak gizakiongan, komunitate eta herrietan eta ingurune naturalean izan ditzakeen ondorioak aztertu behar ditugu. Era berean, kritikoki aztertu behar da zer baldintzatan egiten diren lan horiek eta zer enpresa eredutan garatzen diren.

Gai horiek bereziki garrantzitsuak dira gaur egun, kontuan hartuta ekonomiak joera produktibistari eusten diola, ordaindutako enplegua urria dela eta langabezia handitzen ari dela planeta osoan, lan baldintzak gero eta prekarioagoak direla eta ekoizpenaren ondorio ekologikoak suntsitzaileak direla. Eta horren guztiaren testuingurua enpresa jabetza kapitalistako ereduak da, ahalik eta irabazi handienak lortu nahi dituen beste edozeren gainetik. Bada bestelako enpresa eredurik? Bada ekoizpena antolatzeke beste modurik?

5.2. Ekoizpen jasangarria xedetzat duten enpresa eredu berriak

Ekonomia solidarioak enpresa jarduerak sortu eta kudeatzeko eredu alternatibo bat proposatzen du ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren arloan. Enpresa horiek errentagarritasun, eraginkortasun eta jasangarritasun tekniko eta finantzariotik abiatzen dira, ezinbestean, baina langileak eta interes soziala hartzen dituzte beren jardueraren muintzat; hortaz, alde batera uzten dute kapitalismoaren enpresa araua, zeinak irabazien maximizazioa ezartzen duen helburu nagusitzat, kontuan hartu gabe jardun horrek langileengan, gizartean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak.

Hortaz, mota horretako enpresek lehentasuna ematen diete alderdi eta balio hauei, besteak beste:

- Onura soziala, bizi kalitatea eta pertsonen garapena helburutzat dituen enpresa ikuspegia.
- Ondasun eta zerbitzu onuragarrien ekoizpenari lotutako jarduera ekonomikoak, alde batera uzten dituen pertsonentzat, gizarterako edo ingurumenerako kaltegarriak direnak.
- Baldintza duineko enpleguak sortzeko konpromisoa.
- Autonomiaren, partaidetzaren, erantzunkidetasunaren eta jarduera kooperatiboaren sustapena kudeaketan.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko politika eta neurrien garapena.
- Soldaten eskala justu eta proportzionalen ezarpena.
- Ingurumen jasangarritasunaren sustapena.
- Irabazi asmorik gabeko enpresa jarduerak, non irabaziak ez diren banatzen akziodunen artean, baizik eta berriz inbertitzen diren, lanpostu berriak sortzeko, egiturak hobetzeko eta beste proiektu sozial batzuk babesteko.
- Lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzearen sustapena.

Ekonomia solidarioko enpresak		
formak	sektoreak	ikuspegia
gizarte ekimeneko kooperatibak kooperatibak laneratze enpresak bestelako asoziazio moduak	 elikadura eta nekazaritza  finantzak  energia eta ingurumena  esku-hartze soziala  komunikazioa eta irudia  teknologia berriak  merkataritza  ostalaritza eta turismoa  industria eta eraikuntza  etxebizitza  osasuna, hezkuntza eta zaintzak  aholkularitza eta ikerkuntza  cankidetza eta sentsibilizazioa  garbiketa eta mantentze lanak ...	→ elikadura subiranotasuna → finantza etikoak → ingurumena leheneratzea → gizarte eraldaketa → gizarte inklusioa → erakunde habitagarriak → eraldaketarako hezkuntza → ondasun komunak → merkatu soziala → bidezko merkataritza → ...
balio erantsia → Autogestioa eta partaidetza → Kapitala-lana gatazka gaitzeta → Erabilera sozialeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpena → Lana sarean eta lurraldean		

Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko

Enpresa horiek hainbat eratako enpresa izaera har dezakete; izan ere, aipatu dugunez, ekonomia solidarioko ekimenen ezaugarri nagusia ez da beren forma, printzipio batzuekiko konpromisoa baizik. Edonola ere, aitortu beharra dago printzipio horiek bateragarriagoak direla kooperatiben modalitateekin, horiek, definizioz, oinarritzat baitituzte langileen partaidetzarekin (jabetzan zein kudeaketan), haien arteko berdintasunarekin eta antzeko beste alderdi batzuekin lotutako printzipioak.

Nolanahi ere, badira beste asoziazio eta enpresa forma batzuk ere, hobeto jarduteko bitarteko gisa erabil daitezkeenak, ekonomia solidarioaren printzipioekin bat etorrira. Edo izan daitezke modalitate jakin batzuk, hala nola laneratze enpresak, ekonomia solidarioari dagokion jarduera bat betetzen dutenak, gizarte bazterkeriako egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskua duten pertsona langabeak gizarteratu eta laneratzen dituztelako, pertsona horien partaidetza eta arlo pertsonaleko nahiz lan arloko ahalduntzea sustatzen dituztelako eta horretarako erabiltzen duten enpresa modalitatean (merkataritza sozietatea edo ekonomia sozialeko sozietatea) ezin delako egon irabazirik banatzeko.

Ekonomia solidarioko enpresek edozein jarduera sektoretan lan egin dezakete, baldin eta auto-kudeaketarekin, gizarteari onura dakarkion ekoizpen jasangarriarekin edo beste enpresa batzuekiko interkooperazio eta sareko lanarekin zerikusia duten printzipioetan oinarritzen badira. Era berean, balio erantsia ematen diote beren jarduera sektoreari: elikadura edo nekazaritzaren kasuan, elikadura subiranotasunaren ikuspegitik; finantzen arloan, finantza etiko eta alternatiboen ikuspegitik; energiaren arloan, ekoizpen ekologiko eta jasangarriaren ikuspegitik, etab.

Bada horrelako enpresa sozialik? Esaten den bezain alternatiboak dira? Denborak aurrera egin ahala irauten dute, barne eta kanpo krisiak izanda ere? Egia da, bai, zalantza ugari sor dakizkigukeela enpresa alternatiboak sortu eta mantentzeko, kontuan hartuta egungo testuinguru kapitalista ez dela batere mesedegarria horrelakoak sustatzeko. Hala ere, badira horrelako enpresak, dozenaka mila, planeta osoan. Duela hamarkada askotik daude martxan, eta jardunbide egokien ezin konta ahala adibide dituzte, eta, sarri, baita zailtasunak eta porrotak ere. Baina hazten ari den joera bat da, eta, krisialdian ere, gero eta pertsona gehiago dago, bereziki gazteak, modu konbentzionala ez den beste batean *egin nahi dutenak enpresa* eta *atera nahi dutenak bizimodua*, edo pentsatzen dutenak kolektiboki jardunda aukera handiagoa dagoela enplegu duina eta asegarria sortzeko, edo lan egiten duten enpresa ixtera doazela ikustean hura suspertzeko eta beren kabuz kudeatzeko prozesuak planteatzen dituztenak.

6.1. Merkatu kapitalistak badu alternatibarik

Merkatua da egungo ekonomia sistemaren euskarrietako bat. Hori dela eta, kapitalismoa eraldatu nahi duen proposamen kritiko orok aintzat hartu behar ditu estrategia hauek, besteak beste: merkatuan esku hartu behar du, eta alternatibak eskaini behar ditu ikuspegi integral batetik, bai merkatuko eremuei dagokienez (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa), bai bertako eragileei dagokienez (enpresak, erakunde publikoak, erakunde sozialak, langileak eta kontsumitzaileak).

Hortaz, anbizio handiko proposamen bati buruz ari gara, zeinak balio alternatiboetan oinarritutako ekonomia sareak eraiki nahi dituen. Balio horiek, funtsean, zerikusia dute merkatu kapitalistaren lehiakortasunaren eta jardunbide baztertzailen ordezkari interkooperazioa eta elkartasuna sustatzearekin. Merkatu alternatibo hori, beraz, produktuak eta zerbitzuak trukatzeko sare bat da, eta bertan parte hartzen dute ekonomia solidarioko enpresek, kontsumo selektibo eta eraldatzailea egin nahi duten pertsona eta erakundeak eta bakarka edo taldean finantzaketa etikorako tresnak babesten dituztenek. Sare horren helburua da bertako partaideen behar ahalik eta gehien asetzea.

Zer da merkatu sozial bat?

Ondasun eta zerbitzuak ekoitzi, banatu eta kontsumitzeko sare bat da, irizpide etikoak, demokratikoak, ekologikoak eta solidarioak darabiltzana, ekonomia sozial eta solidarioko enpresek eta erakundeek osatua, kontsumitzaile indibidual eta kolektiboekin batera. Helburutzat du sarea osatzen dutenen premien zati esanguratsu bat sarearen barruan asetzea, eta ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistatik bereizi nahi du, ahalik eta gehien.

Sare horretan, merkatuaren printzipio gidariak elkarren arteko babes eta lankidetzak dira; beraz, hiru arau daude ezarrita, itxuraz errazak, bideragarritasunaren eta jasagarritasunaren oinarri direnak:

- Sareko kide bakoitzak ahal duen guztia sare barruan kontsumitzeko konpromisoa hartzen du.
- Sareko kide bakoitzak ahal duen guztia sarerako ekoizteko konpromisoa hartzen du.
- Sareko kide bakoitzak sareari lotutako beste ekimen batzuk sortzen laguntzen du, aurrezkiak eta soberakinak finantza bitartekari etikoetan inbertituz.

www.mercadosocial.net

Ekonomia solidarioaren ahaleginetako asko bideratu dira, hain zuzen, lurralde mailan horrelako merkatuak eraikitzea, ekintza hori ildo estrategikotzat harturik; ildo estrategikoa garrantzi handiagoko subjektu ekonomiko, sozial eta politiko bat eraikitzeke, gai izango dena hein handi batean bereizita edo alternatiba hedatuagoak planteatzeko beharrezko interkooperaziorik gabe garatzen ari ziren ekimen, sare eta tresnak giltzatzeko.

Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko

Gaur egun, finantzen, elikaduraren edo energia berriztagarrien arloetako ekimenak finkatzen ari dira; jada bada eskarmentua hainbat sektoretan, hala nola bidezko merkataritzan, leheneratze eta birziklapenean edo merkaturatze zirkuitu laburretan; gero eta ugariagoak dira alternatiba sozioekonomikoak, kontsumo kritiko eta eraldatzailea edo gizarte aldaketarako hezkuntza sustatzen duten gizarte mugimenduak. Hori guztia abiapuntutzat hartuta, jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa eman nahi da merkatu soziala eraikita.

Helburuari dagokionez, aipatu beharra dago ekonomia solidarioaren ikuspegitik, eta bereziki ekonomia feministaren ekarpenetatik, merkatu sozialak (ekonomiak berak egiten duen moduan) ez dituela kontuan hartzen soilik merkataritzaren eta ekoizpenaren alderdiak; aitzitik, txertatu, ezagutarazi eta garrantzitsutzat jotzen ditu lan erreproduktiboak, zaintza lanak eta merkatuan tokirik ez dutenak, edo tokia beste era batera bilatu behar dutenak.

Merkatu soziala helburu hauek dituen estrategia bat da:

- Ezagutzera ematea eta sentsibilizatzea. Funtsezko elementua da ekonomia solidarioaren balioak eta ekimenak hedatzeko. Ezagutzera ematen dira alternatiba ekonomikoak, eta aldaketa pertsonal, komunitario nahiz instituzionalak sustatzen dira, modu kritiko, kontziente eta eraldatzailean kontsumituta eta harreman ekonomiko justuagoak, feministagoak eta ekologikoagoak sortu edo/eta bultzatuta.
- Eragin ekonomiko handiagoa izatea. Merkatu sozialaren bidez ekonomia solidario gehiago eta hobea lortu nahi da, eta, hortaz, subjektu ekonomiko gisa hazi: truke ekonomikoak areagotu, enplegu eta ekimen gehiago sortu, merkaturatze modu alternatiboak eta eraginkorrak sustatu, herritarren kontsumoan eta erosketan publikoetan eragin, proposamen ekonomikoak mailakatu, sektore estrategikoetan eta beste eragile ekonomiko batzuetan eragin, etab.
- Politikan eragina izatea. Ekonomia solidarioko sareak arlo ekonomikoko mugimendu bat dira, baina baita arlo sozial eta politikokoa ere. Hori dela eta, merkatu sozialaren helburua da, halaber, eragina izatea politika publikoetan, bereziki tokiko garapen ekonomikoarekin, erosketan publiko arduratsuekin eta, oro har, ondasun komunen kontserbazio eta kudeaketarekin zerikusia duten politiketan.
- Ekonomia solidarioak eta bere sareek mugimendu sozial eraldatzaileen artean aitorpen eta erreferentzialtasun handiagoa izan dezaten lortzea, bai eragile sozial, politiko eta ekonomiko ugarietarako dagokienez, baita beren balioen bidez ekonomia osoan eragiteko eta polinizatzeko duten ahalmenari dagokionez ere.
- Komunitate ekonomiko bat eta harreman komunitate bat eraiki eta garatzea. Merkatu sozialaren xedea da "komunitate alternatibo" bat eraikitzea, bertan asebeteko eta garatu ahal izateko ahalik eta harreman eta ekimen sozioekonomiko gehien, ahalik eta pertsona, komunitate eta erakunde gehien artean. Azken batean, alternatiba ekonomikoetako kontsumo eta partaidetza erreferentzia izan nahi du herritarrentzat.

Praktikan, merkatu hori hainbat bideren bidez garatzen da: ekonomia solidarioko azoken bidez; erakundeak, produktuak eta zerbitzuak jarduera sektoreka sailkatuta aurkezten dituzten eta horiek aurkitzea eta kontsumitzea errazten duten katalogo erabilerrazen bidez; katalogo birtualak aurkezteko eta produktuak erosteko zein zerbitzuen aurrekontua eskatzeko pasabideak ezartzeko aukera ematen duten web tresnen bidez; horien antzera merkatu sozialeko eskuragarritasuna, merkaturatzea eta kontsumoa errazten duten APPen bidez, eta erakundeen eta kontsumitzaileen artean lankidetzarako harremanak ezarriz nahiz fidelizazio tresnak garatuz (bazkidetze txartela, hobariak, beherapenak...), besteak beste.

6.2. Kontsumo kritiko, kontziente eta eraldatzaileko proposamenak

Merkatu sozial alternatibo hori eraikitzeko, beharrezkoa da herritarrek eta eragile sozial eta instituzionalek bestelako kontsumo eredu bat garatzea, oinarritzat premisa hauek izango dituen:

Kontsumo kritikoa. Ikuspegi eta jarrera kritikoa landu behar da merkatu kapitalistaren funtzionamenduarekiko eta, bereziki, egungo kontsumo ereduak bertan betetzen duen eginkizunarekiko. Balio alternatiboak garatu behar ditugu, gure printzipioekiko koherentea den ikuspegi batetik aztertzeko merkatua bera eta bertako ondasun eta zerbitzuen kontsumoa.

Kontsumo kontzientea. Lehen urratsa kontsumitzen ditugun produktu eta zerbitzuei buruzko informazio egokia edukitzea da: nori garatu dituen, non eta zer baldintzatan, eta zer ondorio dituzten osasunean, herritarrengan edo ingurumenean. Bestalde, garrantzitsua da gure kontsumo ekintzek zer ondorio dituzten ezagutzea: nori on egiten dioten, zer ondorio dituen ingurumenean edo gizartean produktu horiek kontsumitzeak... Era berean, gai izan behar dugu "gure nahiak hezteko", benetako beharrak eta funtsezkoak ez direnak bereizteko; izan ere, kapitalismoaren estrategia ongizatea ahalik eta kontsumo gaitasun handienarekin lotzean oinarritzen da.

Kontsumo eraldatzailea. Gure kontsumoa gizartea eraldatzeko palanka izan daiteke, eta egiazko ekintza politiko bat. Horretarako, ezinbestekoa da ez izatea ekintza bakartu bat (jokabide zabalagoen parte baizik), eta ez izatea ekintza indibidual bat (jarrera kolektibo eta antolatuen parte baizik).

Gizarte eta ingurumen justiziaren ikuspegitik, eta aintzat hartuta kontsumoak izan dezakeen ahalmen eraldatzailea, zenbait proposamen aipatu nahi ditugu, hiru atal handitan multzokatuta:

- Gure kontsumoa murriztea. Bi gogoeta hauetatik abiatuko gara: batetik, kontuan hartu behar dugu kontsumo guztiaren helburua eta jomuga ez dela ez gure premia errealak asetzea, ez gure bizi kalitatea hobetzea; bestetik, egia eztabaidea da mugarik gabeko kontsumo orokortua bateraezina dela ingurumen jasangarritasunarekin eta planeta osoko berdintasun sozialarekin. Hori dela eta, "gutxiagorekin hobeto bizitzea" maxima ekologistari jarraituz, neurritasunean oinarritutako bizitza estiloak proposatzen dira, berrerabili eta birziklatzea, erosketa kolektiboak egitea, kontsumo kolaboratiboaren alde egitea, etab.

- Ingurumena errespetatzen duten produktu eta zerbitzuak kontsumitzea. Baliabide natural gutxien kontsumitzen dituzten eta ingurumenean eragin txikiena duten produktuak eta zerbitzuak lehenetsi behar ditugu: gastu energetikoa murrizten dutenak, merkaturatze eta kontsumorako zirkuitu laburrak erabiltzen dituztenak, hondakinik sortzen ez dutenak, iraunkortasuna bermatzen dutenak, etab. Horri esker, gure kontsumoarekin lagundu egingo dugu aztarna ekologikoa murrizten, berotze globala geldiarazten eta pertsonentzat zein planetarako osasungarriagoak diren kontsumo ohiturak garatzen.
- Produktuak eta zerbitzuak irizpide etiko eta sozialekin kontsumitzea, merkatu sozialen garapena sustatzea eta ekonomia solidarioko produktu eta zerbitzuak lehenestea: enpresa kooperatiboak, laneratze enpresak, bidezko merkataritza, finantza eta banku etikoa, nekazaritza ekologikoa eta elikadura subiranotasuna, energia berriztagarrien kooperatibak... Era berean, merkatu orokorrean jarrera kontzientea izatea, eta argi edukitzea zer ezaugarri dituzten ekoizpenak eta merkaturatzeak hainbat alderdiri buruzko nazioarteko hitzarmenak eta estandarrak betetzeari dagokionez: lan baldintza duinak, lan egokia, bidezko soldadak, lan eskubideak, esplotaziorik eza, haurren lanik eza, emakumeen eta gizonen arteko diskriminaziorik eza, herritar sektoreen arteko diskriminaziorik eza, etab. Horretarako, gizartearen sentsibilizatzeko kanpainak eta produktu edo/eta enpresa jakin batzuen aurkako boikot kanpainak sustatu behar dira, behar izanez gero.

Azken batean, ekonomia eraldatzen lagunduko duen kontsumo mota bat sustatu nahi da, elkartasun, ekitate eta jasangarritasun irizpideak oinarritzat hartuta.

Erosketa publiko arduratsua

Erakunde publikoak lehen mailako eragile ekonomikoak dira. Kalkuluen arabera, gizarteko BPGd-ren % 20 inguru bideratzen dute ondasunak erosi eta zerbitzuak kontratatuz. Hori dela eta, haien erosketa politikan kontsumo eraldatzaileko irizpideak aplikatzea proposa dakieke.

Hala, erosketa publiko arduratsua erosketa eta kontratazio publikoko irizpide eta prozeduretan irizpide jakin batzuk txertatzen dituen politika da. Irizpide horiek zerikusia dute lan eskubideekin, giza eskubideekiko errespetuarekin, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin, langabeen eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden kolektiboen laneratzearekin, ingurumenarekiko errespetuarekin, bidezko merkataritzarekin eta produktuen trazabilitate etikoarekin edo ekonomia solidarioko enpresa batzuk kontratu berezien bidez lehenestearekin.

<https://contratacionpublicaresponsable.org>

7.1. Zer dira ekonomia komunitarioak?

EAzken urteotan, ugaritzen ari dira auzo edo lurralde jakin bateko herritarren lankidetzaren ta antolakuntza kolektiboaren bidez komunitateetako beharrak ase eta harremanak indartu nahi dituzten ekimenak.

Horien abiapuntua zera da: elkar babesak, auto-antolakuntza komunitarioak eta borondatezko lanak duten garrantzia, premiak merkatuaren bitartekotzarik gabe asetzeko, truke edo dohaintzako proposamenen bidez. Gizarte berrikuntzaren adibideak dira, esperimentazio maila handia baitakarte. Eta funtsean jardunbide eraldatzaileak dira, oinarritzat baitituzte elkarrekikotasunarekin, auto-kudeaketarekin, demokraziarekin, birbanaketarekin edo gizarte kohesioarekin erlazionatutako balioak.

Ekonomia solidarioarentzat, ekimen ekonomiko alternatiboak dira, nahiz eta ekonomia konbentzionalak ez dituen halakotzat jotzen ez direlako merkatu kapitalistan sartzen, bizitzaren erreproduzioarekin zerikusia duten lanen antzera. Hortaz, ekonomiaren kontzeptu zabala eta askotarikoa proposatzen da, eta, berriro ere, pertsonen eta komunitateen beharrak asetzea eta ongizatea areagotzea da jarduera ekonomikoaren ardatza.

Bestalde, merkatu konbentzionalaren beste-lako ekonomia bat posible dela erakustez gain, ekimen horiek agerian uzten dute merkatu konbentzionalak beti ez dituela eskaintzen dauden beharrentzako erantzun egokienak. Hortaz, ez da kasualitatea horrelako esperientziek gora egin izana, noiz eta, hain justu, azken krisi ekonomikoaren amaieran eta erakunde publikoak gizarteko zerbitzu eta baliabideak kentzen edo pribatizatzen (merkatu-ratzen) ari direnean.

Ekimen horien beste funtsezko ezaugarri bat zera da: herritarrak berak eta oinarri herritar edo sozialeko erakundeak dituztela buru. Ez dituzte bideratzen eta zuzentzen ez merkatuak, ez erakunde publikoek. Hartara, publikoaren (ekintza instituzionala) eta pribatuaren (merkatuko ekintza) arteko bereizketa klasikotik haratago, hirugarren esparru bat sortzen da, komunitarioa denarekin zerikusia duena. Auto-kudeaketak auto-antolakuntza sozialaren bidez egiten du aurrera, eta ondasun komunak eraikitzeo ariketa bilakatzen da.

Azken batean, komunitatea eraikitzen duten jardunbideak dira. Indibidualismoaren, lehiakortasunaren eta elkarrenganako mesfidantzaren

Zer dira “ondasun komunak”?

“Ondasun komunak balio multzo bat dira, eta kontzeptu orokor bat, barne hartzen dituen jardunbide eta aldaketa eraldatzaile ugari. Ondasun komunek guztion interesak eta beharrak azpimarratzen dituzte. Barne hartzen dituzte ekoizpen kolaboratiboa, baliabide ireki eta partekatuak, jabetza kolektiboa, baita ekonomia nahiz politikako antolaera partizipatiboak ere, herritarrak ahalduntzen dituztenak.

Hala ere, oso kontzeptu plurala da, ‘tradizio’ eta ikuspegi asko eta askotarikoak biltzen dituen. Ondasun komun batzuek, adibidez, lotura dute baliabide materialekin (artzain ondasunak, larreak, arrantza, etab.), eta beste batzuek, aldiz, baliabide immaterialekin (ezagutza, etab.).

Ezagutzaren ondasun komunen arloan, ezagutza eskuratzeko baldintzetan jartzen da enfasia: askatasunez eskuratu ahal izatea eta baliabide horiek erabiltzeko eta horien ekoizpenean esku hartzeko aukera izatea hirugarrenen baimenik behar izan gabe. Nabarmentzekoa da ezagutzaren kontzeptua ondasun publiko gisa, ondarearen zati gisa eta giza eskubide gisa”.

Mayo Fuster Morell

logika kapitalistari aurre eginez, lankidetzaz, doakotasuna eta pertsonen arteko harreman kooperatiboak aldarrikatzen dira. Era berean, egitura komunitario eraldatzaileak sortzen dituzte; izan ere, eguneroko bizitzaren kudeaketan eta kontsumoan balio alternatiboekin bat eginda aritzeko jardunbide indibidual batzuk oso muturrekoak izan arren, jardunbide horiek ez dira benetan eraldatzaileak izango ez badira beste pertsona batzuekin partekatzen eta ez badituzte sortzen prozesu kolektibo eta sozialak, sarean elkartuta aldaketa esanguratsuak ekar ditzaketenak.

7.2. Ekonomia komunitarioarako proposamenak eta tresnak

Ez da erraza ekonomia komunitario gisa izenda ditzakegun jardunbideak katalogatzea. Garapen eskaseko kontzeptu bat da, kontzeptu komun batean nekez sailka daitezkeen ekimenak izendatzeko beharrari erantzuten diona, nagusiki.

Edonola ere, lehen aipatutako ezaugarriez gainera, zentzu berbera duten ekimenak dira, premia indibidualak eta kolektiboak uztartzen dituztenak, konfiantzazko harremanetan eta prozedura demokratiko eta asanblearioetan oinarritzen direnak eta pluraltasuna eta aniztasuna errespetatzen dituztenak, ekintzarako estrategia kolektibo bati eutsiz.

Talde batean sar ditzakegu merkaturatu gabeko trukean oinarrituta dauden ekimenak. Hori da, adibidez, "denbora bankuen" kasua, non ez diren objektuak trukatzeko, ezagutzak, trebetasunak eta zerbitzuak baizik; horrelakoetan, denbora da transakzioaren "moneta".

Ekimen ekonomiko alternatibo bat izateaz gain, hasieran elkar ezagutu ere egiten ez zuten pertsonen artean harremanak eraikitzeke bertutea ere badu.

Ekonomia komunitarioak

"Beharrak asetzea xedetzat duten egituraketa kolektibo horiek guztiak dira, non, oro har, borondatezko lanaren pisua funtsezkoa den eta sarbidea ez den ordaintzea, baizik eta komunitate edo talde horretan kide izatea eta parte hartzea.

Baratze komunitarioei, kontsumo taldeei, trukeko sareei, denbora bankuei edo hazkuntza partekatuko taldeei buruz ari naiz. Komunitarioak direnez, eta asanblearioak, oro har, ardatz bertikalean botere banatuaren adierazle nagusitzat ipini dut.

Gutxien garatutako kontzeptua da, agian, eta, hortaz, gutxien artikulatuta dagoen sektorea. Ekonomia sozial eta solidarioaren parte da, nolabait, eta lotura hertsia du zaintzen ekonomiekin".

Alvaro Porro

Esperientzia ugari daude trukearen merkatu edo azoketan oinarrituak (objektuak trukatzeko dira bertan), eta "doako dendak" ere badaude: horrelakoetan, jada behar ez dituen gauzak uzten ditu jendeak, eta beste norbaitek doan hartzen ditu, erabiltzeko. Kasu horretan, birziklapenaren balio ekologikoa eta doakotasunaren ekonomiaren balioa dauzkagu.

Kolektiboen artean espazioak eta baliabideak trukatzeko sareak ere badaude; eta "gauzen bankuak", non erabilera komunitarioko tresnak eskura daitezkeen, pertsona bakoitzak berea eduki behar izan gabe. Ezagutzak, baliabide teknologikoak eta abar trukatzeko sareak ere badaude.

Bestalde, aipatzekoa da ugaritu egin direla "diru sozial" izenekoak (edo tokikoak, osagarriak, komunitarioak...). Oinarritzat dute produktuak eta zerbitzuak trukatzeko sistema bat, eta legezko dirua ez den beste bat erabiltzen dute.

7. Diruaz eta merkatuaz haratago: komunitatearen zerbitzura dauden ekonomiak

Era horretako diru asko daude, eta irizpide eta sistema desberdinekin funtzionatzen dute. Batzuen xedea da lurralde jakin bateko tokiko ekonomia indartzea; beste batzuek, berriz, sare jakin bateko trukeak sendotu nahi dituzte, eta beste batzuek kontsumoa balio alternatibo jakin batzuekin lotzea sustatzen dute (ekologia, feminismoa, kultura eta hizkuntza gutxituak...). Batzuek txanpon fisikoa erabiltzen dute, eta beste batzuek, aldiz, birtualki funtzionatzen dute. Batzuk tokiko erakunde publikoek edo herritar sareek nahiz gizarte mugimenduek sustatzen dituzte. Batzuek indarreko txanponarekin parekotasunean funtzionatzen dute, eta beste batzuek beste sistema konplexuago batzuk erabiltzen dituzte.

Hezkuntzaren eta zaintzen eremuan ere badira ekimen komunitarioak. Horren adibide dira "hazkuntza taldeak", hazkuntzaren zenbait alderdi partekatzeke biltzen diren pertsonen osatuak; "edoskitze taldeak", erditu ostean eta edoskitzaroan elkarri babesa emateko sortuak; hezkuntza formalaren bestelako esperientzia hezitzaileak; adinekoak zaintzen dituzten pertsonen elkar laguntzeko taldeak, etab.

Elikaduraren sektorean sartuta daude bertako produktuen eta produktu ekologikoen kontsumo talde guztiak; talde horietan, ekoizleek harreman zuzena dute kontsumitzaileekin, eta azken horiek astero jasotzen dute produktuz betetako saskia. Multzo honetakoak dira, halaber, hiriko baratzeak edo baratze partekatuak: horrelakoetan, hiriko espazioak, hiri ingurukoak edo baita terrazak ere auto-kontsumorako elikagaiak ekoizteko erabiltzen dira.

Azkenik, zenbaitek ekonomia komunitarioen eremuan kokatzen dituzte kolaboratibotzat jotzen diren ekimen batzuk ere: autoa partekatzea, oporraldietarako etxebizitzak trukatea, teknologia berrian arloko ekoizpen kolaboratiboa, kultura kooperatiba eta ateneoak, etab.

Kontsultatutako bibliografia



- ASKUNZE, Carlos (2007): "Economía Solidaria", in CELORIO, Gema eta Alicia López de Munain (koord.): *Diccionario de Educación para el desarrollo*, Hegoa, Bilbo, 107-113.
- ASKUNZE; Carlos (2013): "Más allá del capitalismo: alternativas desde la economía Solidaria", *Documentación Social*, 168. zk., Cáritas Española, Madril, 97-116.
- CARRASCO, Cristina (2014): "Economía, trabajos y sostenibilidad de la vida", in Zenbaiten artean: *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, Bilbo, 27-42.
- DIEZ, María Angeles eta Carlos Askunze (2018): "Transformar la economía para transformar el territorio. La Economía Social y Solidaria y el Desarrollo Humano Local", *Dossieres EsF*, 31. zk., Madril, 29-33.
- GARCIA JANÉ, Jordi (2012): *Adiós, capitalismo. 15M-2031*, Icaria, Bartzelona.
- MARÇAL, Katrine (2016): *¿Quién le hacía la cena a Adam Smith? Una historia de las mujeres y la economía*, Debate, Madril.
- NAVEDA, Amaia (2016): "Auditoría Social, más allá de la cuenta de resultados", *Pueblos*, 71. zk., Paz con Dignidad, Madril, 36-37.
- ORTEGA, Susana (2016): "El Mercado Social, una herramienta al servicio de la economía social y solidaria", *Pueblos*, 71. zk., Paz con Dignidad, Madril, 34-35.
- PEREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; Enekoitz Etxezarreta eta Luis Guridi, (2009): "Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate", *Papeles de Economía Solidaria*, 1. zk., Reas Euskadi, Bilbo.
- PORRO, Ávaro (2016): "¿Qué son las economías transformadoras?", in www.opcions.org
- TRANSNATIONAL INSTITUTE (2017): "La cultura de los bienes comunes", Mayo Fuster Morellen elkarrizketa, hemen: www.tni.org

